

ALFERRA



zenbat kalte egiten duen alferkeriak eta nola andik sortzen den gerotik gerora ibiltzea

Eskritura Sainduak, Elizako Doktorek, leenagoko Ientilek, eta are zeruko, aireko eta lurreko gauza guztiek ere kondenatzen dute alferra, eta emaiten aditzera bear dela travaillatu, eta nor bere aldetik bere eginbidearen egitera enseyatu. Zeren nola ardurako travailluak, lan guztiak aitzinatzen baititu, ala alferkeriak gibelatzen tu.

Galdegiten du San Krisostomok: *Quis equus utilis est, is qui in deliciis, vel qui exercetur? Quæ navis, quæ navigat, vel puce in litore est? Quæ aqua, ea ne quæfluit vel quæ stat? Quod ferrum, an quod moretur, an quo nemo utitur? Nunc quidem illud splendet ac argento simile est, hoc autem rubigine consumitur. Tale quidem fit etiam in otiosa anima:*¹ Zein zaldi da on edo obeago, geldirik eta alferrik bere plazerera dagoena, ala ibiltzen eta manayatzten dena? Zein untzi, kostan dagoena, ala itsasoan dabillana? Zein ur, geldia, ala lasterra? Zein burdina, zokoan datzana, ala erabiltzen dena? Segur da, guztiak erabiltzeaz, manayatzteaz eta eskutatzeaz on-tzen, argitzen eta fintzen direla; eta bai alfer eta geldi egoiteaz ere, galtzen, desegiten, eta erdoiltzen. Bada aur beror gertatzen da, alfer dagoena baitan ere.

Dabillan arriari etzaika goroldiorik lotzen; ur irakinean eztu uliak pausatzen; ardurako arropari etzaika zerrenik egiten; zuaitz betakorra eztu neork ebakitzen. Baina alferra, fauna, utsa, bere sasoinen iasai-

(1) Chrisost. Serm. in acta Apost.

ten eztuena, zertako da? *Ut quid etiam terram occupat?*¹ Alakoak zertako trabatuko du lurra?

Nos numeri sumus fruges consumere nati,² dio Oraziok, alferrez mintzo dela; gu kontu gara, gurekin kontuz geiago, baina gainerakoan ezkara deusetako, lurreko fruituen eta onen iateko baizen. Zerbitzariak alfer egoiteaz beraz, gaizkirik ez eginagatik ere, merezi du gaztigua. Zeren San Krisostomok dioen bezala: *Nihil boni facere, hoc ipsum est malum facere*,³ ongirik ez egitea bera, da gaizki egitea. Eta Katonen errana da: *Homines nihil agendo, male agere discunt*; ez deus egiteaz beraz ikasten da gaizki egiten. *Otiositas est mater nugarum, noverca virtutum*,⁴ alfertasuna da ergelkerien ama, eta bertuten amaizuna. Eta alaten ergelkeriek, erokeriek eta bizio suerte guztiek egiten dute laster alfertasunera, zeren ama baitute: baina bertutek eta obra onek ies; zeren nola baitute amaizun, baitakite eztuketela arenganik begitarterik eta ez ongi etorririk.

§ 1

Erraiten du Iob Sainduak, deabruaz mintzo dela: *Sub umbra dormit in secreto calami*,⁵ itzalpean, kanaberaren estalgunean eta gerizan egiten du bere loa, an pausatzen du. Kanaberak, nola baita zuaitz alferra, fruiturik iasaiten eztuena eta barrenean ere utsa, signifikatzen du presuna alferra. Eta artan, nor bere ostatu iakinean bezala, ostatatzen da deabrua. Argatik erraiten zioen San Jeronimok bere adiskide bati: *Facite aliquid boni operis, ut diabolus semper te inveniat occupatum*,⁶ Etzaudezila beinere alferrik, egizu betiere zenbait obra on, alatan betiere deabruak emplegatua ediren zaitzan.

Multam malitiam docuit otiositas,⁷ dio Spiritu Sainduak: anitz malizia erakutsi izatu du alferkeriak. Ezta maliziarik eta ez pensu gaištatorik, presuna alferrean ediren eztekeyenik. Asko da erraitea, alferra dela, artzaz edo zein gaištakeriaren sinesteko.

Per agrum hominis pigri transivi et per vineam viri stulti,

(1) Luc. 13.

(2) Horat. lib. 5, cap. 2.

(3) Chris. Serm.

(4) Bernard. lib. de Considera., cap. 12.

(5) Iob. 40.

(6) Hier. ad. Rusticum.

(7) Eccli. 33.

*et ecce totum repleverant urticæ et operuerunt superficiem ejus spinæ, et materia, lapidum destructa est. Quod cum vidissem, posui in corde meo et exemplo didici disciplinam:*¹ iragan nintzen gizon nagiairen landatik eta ero governu gabearen maastitik (dio Spiritu Sainduak), eta guztiak ziren asuinez, elorritz eta belar gaiñstoz beateak; eta esiak, erstegiak eta armorak ere, eroriak eta deseginak. Eta ek ala ikusi nituenean, egin nuen gogoeta, artu nuen exemplo, ikasi nuen zer egin bear nuen, eta zentzatu nintzen bertzeren gainean. Eta zer den nagiairen landatik eta ero governu gabearen maastitik edo arantzetik iragaitea, deklaratzeko Glosak, erraiten duela: *Per agrum hominis pigri atque per vineam viri stulti transire, est vitam cuiuslibet negligentis inspicere, quam urticæ vel spins replent;*² nagiairen landatik eta governu gabearen maastitik iragaitea, da, presuna alferaren eta antzikabearen bizitzearen eta ioan-etorrien kontsideratzea; eta etan, landa iorratu gabea bezala, anitz asuin eta belar gaiñsto, anitz falta, malizia eta bekatu edireitea. Asuina edireiten da alfer nagiairen landan eta alorrean, zeren, *urtica figurat acediam, si molli-ter tangis urit: si fortiter astringis non pungit;* asuinak sinifikatzen du nagitasuna: baldin malguki, leunki, emeki, nagiki balakuz bezala azkatzen, ferekatzen eta erabiltzen baduzu, erreku zaitu: baina ez, nabasiki eta ausartki ersten eta marruskatzen baduzu. *Fertilis assiduo si non renovetur aratro, nihil nisi cum spinis, gramen habebit ager;*³ dio Obidiok; den lurrik oherenak ere bear du apaindu, garbitu eta iorratu; zeren bertzela belar gaiñstoa izanen da betiere iaun eta nabusi. *Pestis est mortalibus ignavia;*⁴ ezta izurrik eta ez pozoinik nagitasunak edo alferkeriak bezanbat kalte egiten duenik.

Badirudi ezen eztuela nai izatu lainkoak dagoen beinere itsasoa geldirik: baina nai du ibil dadin, igi dadin, marea dadin. Zeren bertzela usain liteke, kirats liteke; eta are apoz, sugez, ieles eta likiñskeriaz bete liteke; lakuak, aintzirak eta bertze ur geldiak betetzen diren bezala.

AXULAR, *Sarako Erretorak.*



-
- (1) Prov. 24.
 (2) Glossa, ordi. super 24. Prover.
 (3) Ovid. lib. de trist.
 (4) Plaut. de Rep.

Ahora resulta que, con motivo del cambio político habido en las esferas del Gobierno, el Sr. Gonzalez Rothvoss ha dimitido su cargo; y nosotros, sintiendo verdaderamente la ausencia de tan cumplido caballero, que ha sabido captarse el respeto y la gratitud de todos los guipuzcoanos durante la época de su mando, no dudamos que la Excelentísima Diputación llevará adelante el asunto, estudiándolo con la asidua y cariñosa atención que merece.

ALFERRA

Zenbat kalte egiten duen alferkeriak eta nola andik sortzen den gerotik gerora ibiltzea

§ 2

Presuna alferra edukazu galdutzat eta iltzat. Eta andik erraiten du Senekak: *Otium sine litteris, vivi hominis sepultura*; letra gabearen aisia, jakintsu eztenaren alferkeria, gizon biziaren obia da, eta eortztokia. Zeren deus eztakiena, eta egiten ere eztuena, presuna ilaren eta eortzirik datzanaren pare baita. *Omnium vitiorum quasi magistra quædam atque origo, otiositas*, dio San Krisostomok: bizio guztien eta pensu gaišto guztien zimendu, itur-buru eta maestru bezala da alfertasuna. Zeren iturritik ura bezala, alferkeriatik ere sortzen baitira gaištakeriak.

Andik eldu da probetasuna, errumeskeria, eskean ibiltzea, eta bai ooin izaitea ere; *pigritia est nutrix egestatis*, dio Senekak; nagitasuna da gabeziaren eta pobreziaren unidea eta az-ama. Eta erraiten du Spiritu Sainduak ere: *Omnis piger in egestate est*, nagia beti da bear, eskas, eta errumes. *Qui furabatur, jam non furetur, magis autem laboret, ut habeat unde tribuat necessitatem patienti*, dio Iondone Paulok; ebatsten zuenak, eztezala ebats, baina travailla bedi, manaya bedi, eta alatan izanen du bere eta bertzeren. Erran nai du, baldin travaillatzen bada, eztuela ebatsiko, eta ez errumeskeriarik

ikusiko. *Egestatem operata est manus remissa, manus autem fortis divitias parat*, dio Spiritu Sainduak: esku lachoak eta alferrak probetasun dakarke, baina bortitzak eta travaillaiak aberatstasun biltzen du.

Otiosus Esau amisit primatus benedictionem, quia maluit accipere quam quærere, dio San Ambrosiok; Esau alferrak galdu zuen bere leentasuna, zeren naiago izatu zuen artu, ezen ez bilatu. Ala egi-ten dute bertze iende alferrek ere, naiago dituzte bertzeren onak zu-zen edo makur artu, eta bereak ere baitu eta saldu, travaillatu baino. Eta gero ezin ar dazaketenean eta ez ebats: eta baitzekorik eta saltze-
korik ere eztutenean; abiatzen dira eskean, bataren eta bertzearen fo-
rogu, anitz beltzuri eta bekaitzkoa izaiten dutela, eta ateak ere maiz, ez ikusi iduri eginik, ersten zaiztela. Badirudi ezen aur eman nai zuela aditzera Spiritu Sainduak, erran zuenean: *Subtrahe pedem de domo proximi tui, ne quando satiatius oderit te*, gibela ezazu zeure oina adiskidearen etchetik, ez an maiz ibil, ase eztezazun, igin etzakitzan eta gaitzets etzaitzan. Zeren San Ambrosiok dioen bezala: *Qui frequenter ad alienam mensam convenit, otio deditus est*: Bertzeren maaira maiz biltzen denak, badirudi alferkeriari emana dela.

Eta alakoa eta alakoak, baina eta aisiak, maiz dira gaizki eta on-
bear. Baina aldeztira urrikalkizun, zeren bere faltaz, travaillatu nai gabez, eta etorkizunera ez beatuz alakatu baitira. Paga bezate beraz iragan duten aisia eta alferkeria, presenteko penaz eta travailluaz: lee-
neko asea eta soberania, oraiko goseaz eta eskasiaz. *In omni opere bono erit abundantia, ubi autem verba sunt plurima, ibi frequenter egestas*: Travaillu onean izanen da franko eta frankia, baina itz anitz den lekuan, maiz da probetasuna eta eskasia. Alferrak, choil dira itztun eder, solasturi andi; eken konpainian zarenean, ezta zure aldi-
rik, zu baino ek obeki entzunak dira, ekentzat da audientzia guztia; ei dagote mundua, aoa zabaldurik eta bearriak ernaturik, bea. Ordea gero azkenean ek eskale, eta zu emaille. Aur da alferkeriatik edo na-
gitasunetik eldu den irabazia, probezia, errumeskeria: bataren eta ber-
tzearen karga eta forogu izaitea: ondore gaïstoa, kalte andia.

Baina kalte guztien gaineko kaltea, alferkeriatik eldu den andiena, zeini darraikola erran baitut, nik orainokoan erran dudan guztia, da luzamendua, gerotik gerora ibiltzea. Zeren nagí-alferrak eztu beinere erraiten egun; beti biar, beti GERO, beti luzamendu. Alfertasuna da GERO orren itur-burua, zimendua eta ama: egiteko guztiak egunetik

biarrera, presentetik etorkizunera, eta GEROTIK GERORA luzatzen di-tuena. Eta ama unen alaba aur, nagitasunetik eta alferkeriatik sortzen den GERO aur, da gure galgarria, gure izurria eta egundainotik gure etsai deabruak, gure enganatzeko ediren aal duen biderik eta arterik oberena, finena eta segurena.

Beraz guk ere, GERO uni eduki bear diogu begia. Unen geure ga-nik kentzera, urruntzera eta etchetik ateratzera, bear dugu geure in-dar guztiaz eta antzeaz enseyatu, permatu, deliberatu; eta egun egin bear dugun gauzarik, eta aal daidikegunik, ez biarko luzatu; ez alfer eta nagi egon.

Nola alferrari naikunde utsetan, eta desirkunde choiletan iragaiten zayon denbora

Erraiten du Salomonek, edo Salomonen aotik Spiritu Sainduak: *Sicut ostium vertitur in cardine suo, sic diger in lectulo suo*; atea bere erroetan bezala itzultzen da nagia ere bere oean edo kamas-tran. Atea bere erroetan eta ualetan ongi iarria eta pausatua dagoe-nean, errazki ersten eta idekitzen da, aise alde batera eta bertzera era-biltzen da. Ordea erabiltze ek guztiakgatik ere, erabili ondoan bere lekuan eta tokian gelditzen da. Nagia ere negu otzean, ateak ateari darauntsanean, oean igitzen da, bertze aldera itzultzen da, burua goi-titurik iartzen da. Ordea argatik itzul-inguru eken buruan, lotara bere oe berora biurtzen da. Bada aur beror spirituali, bekatore nagia bai-tan ere gertatzen da; bekatoreak egonaren buruan, ezagutzen du, bide makurra daramala, errebelatua doala. Eta artzen du zerbait gogo, ar-tzen du naikunde bat, bide onera biurtzeko, bizitze berri bati lotzeko; eta anarterainoko aztura gaišto guztien utzteko. Ordea gero ere, iraul-tze eta ibiltze eken guztien finean, atea bere erroetan, eta nagia berea, oean bezala, bere bekatuen chisteran eta etzauntzan baratzen eta geldi-tzen da.

Aztoarea eskuan dadukazunean, igitzen da, iarosten da, egaldatzera apoderatzen eta oldartzen da. Ordea oldarze ek egin eta, leen zegoen eskura biurtzen da. Ala biurtzen da bada bekatore nagia ere, bere go-goeta on guztien buruan, bere leeneko tornuetara eta maina gaištoe-tara. Enseyatzen da, baina flakoki; urbiltzen da, baina ez aski. Ala-koakgatik erraiten du Isaias profetak: *Venerunt usque ad partum et virtus non est pariendi*; Etorri ziren erditzeko pontura, ordea etzi-

ren erdi, etzen artarakotzat indarrrik aski. Artzen dugu gogo, artzen dugu borondate, obra onak egin bear ditugula, eta etortzen gara egin bear ditugun orenera, ordea an istitzen eta gibelatzen gara, an anu eta uko egiten dugu, bearrenean faltatzen dugu. Zeren artzen dugun gogo eta borondate ura ezpaita fina, ezpaita zinezkoa, eta ez deliberatuki deliberatua; naikundea baita eta ez naia. *Voluntas nova quæ mihi esse cœperat, non erat idonea, ad superandam priorem, vetustate roboratam*, dio San Agustinek; ene borondate berriak etzun indarrrik asko, borondate zaarraren garaitzeko. Lo datzanak, erdi iratzartzen denean, egiten du zenbait mugida, iaiki nai iduri bat, baina nola ezpaita asko zinez permatzen, berriz lotara biurtzen da, loa nabusi gel-ditzen da. Ala, dio San Agustinek, gertatzen zeikala aldia batez, be-rari ere: *Cogitationes quibus meditabar in me similes erant cona-tibus expergisci volentium, qui tamen superati soporis altitudine remerguntur*; munduko atseginetik eta plazerek lo gozo batek bezala, azpian nendukaten, eta noizik bein etortzen zeizkidan plazer etarik ilkiteketo eta lainkoaganat itzultzeko desirkunde batzuk; baina ek guz-tiak, lotarik iratzarri nai zuenaren enseyu eta permadura flako batzuk bezala ziren, probetchu gabekoak, loaren garaiteko, munduko egite-koetarik ateratzeko, indarrrik asko etzutenak. Eta alatan neure desir-kunde on guztien buruan ere, neure leeneko usantzetan eta bekatue-tan gelditzen nintzen.

Vult et non vult piger, dio Salomonek; nai du, eta eztu nai na-giak. Eztu nai osoa, eta ez konplitua. *Pigri vocabulo denotatur, quod vult regnare cum Deo, et non laborare pro Deo: delectant præmia cum pollicentur, deterrent certamina cum jubentur*; nai du nagiak lainkoaren erresuman parte, ez ordea erresuma aren erdies-teko iragan bear diren travailluetan. Pagamenduak alegeratzen du, nekeak tristetzen du eta izitzen. Ongi egitetik eldu den irabazia, on-girik egin gabe nai luke gozatu. Nai du ioan parabisura, ordea nekatu gabe; atseginik ez nai du utzi, eta ez penarik artu. Erabe du bideari lotzera; *piger, quasi æger pedibus*; maingu da, oinak ditu eri, go-goä erbal eta flako. Naikundea badu, naiaren obratzea zayo falta, ura gerokotz egozten du: deus ere obratu gabe, deus ere beure gogoak eta borondateak dioskun gauzarik baizen egin gabe, desira utsen boterez, borondateaz beraz, nai luke salbatu eta zeruko lorian sartu. Eta desira autan, geroko gogoan eta borondatean, denbora guztia iragaiten zayo.

Erran komuna da ifernua desira onez betea dagoela. Zeren an di-

renek obratu ezpazuten ere, zenbait desira on bedere izan zuten. Ezta near ere ain gaiſtorik, zenbait aldiz bere gaitakerien uzteko gogoa etortzen etzaikanik, eta zenbait desirkunde on ere izaiten eztuenik. Ordea desirkunde on ek berak eztira asko; zeren ek lorea bezala dira. Eta nola artzen ezten loreaz etchekitzen eztenaz, botean edo ninikoan galtzen denaz, ezpaita probetchurik: ala borondateaz beraz, desira ut-saz, choillaz eta bakarraz obra aal ditekeyela, obratu gabe gelditzen denaz ezin dateke probetchurik eta ez fruiturik.

Alferrari erran bear zaika dagiela; eta nagïari, egigi dadilla: eta ordea, ala bata nola bertzea, biak orobatsu baitira, biak dira boron-date uts: eztira naikunderik, desirkunderik, gogorik eta gutiziarik baizen. Eta gutizia ek berak dira penagarririk asko: *Desideria occidut pigrum*; naikundek iltzen dute alferra, dio Spiritu Sainduak. Erraiten oi da: *Ignavis semper sunt feriæ*; nagientzat eta alferrentzat egun guztiak dira besta. Baiña obeki erran liteke, alakoentzat, bestak ere astelegun direla. Zeren nekazaileak bere lanean baino, anitzetan ere alferrak bere alferkerian, neke guchiago edireiten baitu. Ageri da erre-ge David baitan: Errege ari etzeraukaten egundaino gerlek eta gerle-tako travailluek anbat egiteko eta atsekabe eman nola alferkeriak, eta alfer zegoela egin zituen bekatuek. *Non sunt otiosi quorum voluptates multum negotium habent*, dio Senekak: Eztaude ez alferrik, plazeretan dabilzanak; zeren plazeretan bada desplazer eta atsekabe, travaillu eta egiteko. *Dum otia vacant in rem negotiosissimam incidunt*; Alfer egoiteaz erortzen dira egiteko anditan. *Sicut enim cum quis non comedit, dentibus nocet; ita qui comedit non accomoda stupescere facit*; nola ez jateak galtzen baititu ortz-aginak: ala bear eztenetik jateak ere, ortzkitzen ditu.

AXULAR, *Sarako Erretorak.*



D.^a ANTONIA DE LAS RIVAS Y UBIETA

Esta respetabilísima señora falleció en Portugalete el día 15 del corriente, á los 82 años de edad.

Entre las inestimables prendas personales que adornaban á la finada, sobresalía su acendrado amor á los pobres, con quienes compartía pródigamente sus cuantiosos bienes de fortuna y con consejos maternales les consolaba en sus aflicciones.

Ha muerto rodeada de los suyos, especialmente de sus hijos don Francisco y D. José María, que le han acompañado durante el curso de su enfermedad.

La conducción del cadáver al cementerio de Mallona y los funerales celebrados en las parroquias de San Nicolás de Bari (Bilbao) y Santa María, de Portugalete, han sido una verdadera manifestación de duelo.

Descanse en paz la finada y reciba su distinguida familia la expresión de nuestro sentimiento.

ALFERRA



**Nola alferrari naikunde utsetan, eta desirkunde choiletan
iragaiten zayon denbora**

§ 2

Gauza segura da eta egiazkoa, fedea erakusten duena, salbatzeko, zeruko lorian sartzeko, eztirela desira onak berak asko; baiña bear di-rela lainkoaren manamendu Sainduak, desiraz bezala obraz ere kon-plitu. Aur da egia, eta egia aur girstino garen guztiek sinesten dugu. Ordea guztiarekin ere edireiten du gure maliziak eta borondate gais-toak zenbait itzulpide, zenbait desenkusa, eta eskapatzeko bide; obra-tzea utzirik, desiratan denboraren iragaiteko, luzamendutan ibiltzeko. *Propter frigus piger arare noluit*: traillaatu nai etzuenak, otzaren

atchakia egin zuen: barurtzera erabe zuenak, buruan min zuela erran zuen. *Dicit piger, leo est in via*: nagiak bere lekutik igitu nai eztuenak, trabu andiak edireiten ditu, bidean ere leoina dagoela erraiten du. *Occasiones, quærit qui vult recedere ab amico*: adiskideaz desegin nai denak, adiskidetasuna autsi nai duenak, okasinoak bilatzen ditu, anitz desenkusa eta estakuru edireiten du. Ala edireiten ditu bada alferrak desenkusak, estakuruak, atchakiak eta itzulpideak, bekatan egoiteko, desirkundetari eta naikundetari denboraren iragaiteko.

Neork ontasunera ersten zaituenean, eta gibela zaudenean, iardesten diozu, ala ersten zaituenari: Otoi orai presentean barkatu bear derautazu, ezin dadiket oraiño zuk diozuna. Zeren buruan sartu baitzait fantasia bat, konplitu bear dut fantasia ura: gogora baitzait gutizia bat, iragan bear dut gutizia ura: apur bat ase bear dut; aspertu bear dut, dichiritu bear dut; eta gero orduan ase, asper, dichiri eta neka nadienean, bianda egintzen as dakidanean, orduan guztiak utziko ditut; orduan bide on batean jartzera eta finkatzera deliberatuki deliberatuko dut. Baiña bitartean, anarteraino, ezta zer mintzaturik. Zeren nik orai aal dukedan guztia da, desira ona, gero gogoa eta intenzioea, eta ez bertzerik. Ezta bide gaitoa aur, ezta unela orai egitea gero fin gaitz egiteko. Ordea Spiritu Sainduak derratsu ori bide gaitoa eta galgarria dela, eta enganutzen zarela.

§ 3

San Agustinek, frogatuak bezala, anitz gauza erraiten du luzamendutan ibiltzeko pontu unen gaitzean. Kontatzen du, nola bere bizitze gaitzearen utzteko ingurunera zenean, ibilli zen ezin etenduz, ezin partituz, eta bere baitan ezin deliberatuz. Kontatzen du alaber, zenbat trabu edireiten zuen, zenbat gerla egiten zioten bere lagunek, okasionez, eta aztura gaitzeok. Alde batetik desiratzen zuen bide onean iartzea: artara bulkatzen zuten bere ama sainduaren nigarrek, kontzienziaren ausikiek, eta lainkoaren manamenduek. Eta bertzetik, trabatzen eta gibelatzen zuten leeneko usantzek, eta guztiz ere lagunak balakuek, itz ederrek eta plazerekin: *Tenaciter colligabar à fœmina*; pasionez zedukatan bortizki lotua. *Dixeram da mihi castitatem et continentiam, sed noli modo. Timebam enim, ne me cito erraudires et sanares à morbo concupiscentiæ, malebam expleri quam extinguui*. Munduko atseginetarik apartatzea, ain zeitzan gaitz eta gaitzi, ezen bere otoitzak

ere, etzaz geroko, etorkizuneko egiten baitzituen. Zeren beldur zen, entzun zezan bereala lainkoak, eta bere plazerak, gozatu naizko desira andi batekin bere gogoan zerabiltzanak, gibela ziatzon. Egiteko unetan zebillanean: erraiten zioen lainkoari: *Modo, ecce modo, sine paululum*: A launa, utz azu apur bat, igurikazu bertze apur bat, ez leia, ez kecha, ez berantets, sarri naiz zurekin. Unela erraiten zuen, unela luzatzen men. Eta luzamendu autan zebillala, denbora apur bat iragan zeikan. Ordea gero ura alere asko goiz biurtu zen, etzen azken ponturaino egotu. Aitzitik, aldebatetik eta bertzetik bere kontuak eginik, erran zioen, deliberamendu andi batekin, bere adiskide bati: *Ego jam me abrupti ab illa nostra spe, et ideo servire statui ex hac hora, in loco hoc aggredior*: Nitaz denaz bezan batean, ni kanpoan naiz munduko egitekoetarik, banalorietarik eta esperantza guztietarik: nik autsi dut munduarekin; egin dut arekikoaz, eta deliberatu dut lainkoaren zerbitzatzerara. Eta orai berean, presentean asten naiz: ezta ia geiago, geroko gerorik, luzamendurik, eta ez epetan ibiltzerik. Eta ala, erran bezala, egin ere zuen. Anitz luzamendu erabili zuen, baiña azkenean guztiak, eta asko goiz utzi zituen. Baiña zuk eztuzu ala egiten, egunetik egunera zabilta, beti prometa, beti gogo ar; eta bein ere ez eten, bein ere ez delibera, eta ez konpli: beti nai, beti nagi; naikunde utsetan, desirkundetan, denbora guztia gal, eta ala zaudezilla, eriozkeak atrapa, atzeman eta ar.

Ikusiko duzu iende andi batzuen etchetan, Erkules sendo famatu ura moldatua, makilla borra bat edo maillu andi bat eskuan duela; baitirudi ezen artzaz, etcheansartzen diren guztiey buruak autsi bear derauztela. Ordea nola Erkules ura, arriz, zurez edo kobrez egina baita, edo pintura bat baizen ezpaita, geldi dago, keinatzea egiten du eta ez bertzerik. Ala dira bada, gerotik gerora dabiltzanak ere: keinatzen dira, eta eztute aurtikitzen; destatzen dira, eta eztute desarratzen. Erraiten dute: eginen dut, eta eztute bein ere egiten. Ala daudela denbora guztia iragaiten zaye, eta berak ere iragaiten, igatzen eta akatzen dira.

AXULAR, *Sarako Erretorak.*

